

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

# OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

Koronabirusari aurre egiteko neurri zehatzak

2021eko uztailaren 23an eguneratutako dokumentua

*Euskadi, bien común*





## Aurkezpena

Dokumentu honek, ohiko galderen erantzunen zerrenda baten bidez, honako hauen edukia hobeto ulertzen eta interpretatzen lagundu nahi du:

·35/2021, uztailaren 23koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa.

·34/2021 Dekretua, uztailaren 15ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa.

·33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, Lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa.

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>



## I. Gomendio orokorrak

1. Erabili maskara barruko eta kanpoko espazioetan, pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantzia etengabe mantendu ezin denean.
2. Mantendu pertsona arteko 1,5 metroko distantzia. Barruko espazioak etengabe aireztatu.
3. Indarrean dauden prebentzio-protokoloak eta -neurriak aplikatzen ez diren pertsonen pilaketa dakartzaten bilkuretan, festetan edo ekitaldietan –ez kanpoan, ez barruan– ez ezazu parte hartu.
4. Borondatez lagundu gaueko mugikortasuna 01:00etatik 06:00etara mugatzera.
5. Gehienez 6 pertsonako taldeak mantendu.
6. Sintoma susmagarririk izanez gero, hala nola eztula, eztarriko mina, sukarra, aire-faltaren sentrazioa edo usaimena galtzea, konfinatu eta isolatu etxean eta kontaktatu zure osasun-zentroarekin.
7. COVID-19 proba batean positibo eman baduzu edo azken egunetan positiboa eman duen norbaitekin kontaktuan egon bazara, lagundu aktiboki bilaketa-zerbitzuei, birusaren transmisioa zabal ez dadin.



## II. Aplikazio orokorreko neurriei buruzko galderak eta erantzunak

### **MASKARAREN ERABILPENARI BURUZKOA**

#### **1. Noiz da derrigorrezkoa maskara erabiltzea?**

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, betiere pertsonen arteko gutxieneko 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea ezinezkoa bada.

Ondorioz, maskara erabili beharra mota guztietako hiriguneetara hedatzen da, hala nola udalerrietako alde zaharrak, merkataritza-gune eta dendak, merkatuak, azoka txiki edo ostalaritza-establezimenduak dauden gunek, bai eta itsas espazio eta pasealeku guztiak, haur-parkeak, espaloiak, oinezkoentzako pasabideak, plazak edo jendea biltzen den kaleak ere.

Ez da erabili behar ingurune naturalean, baldin eta ez bada jende pilaketarik edo bizikiderik gabeko pertsonetikiko konkurrentziarik gertatzen.

#### **2. ¿Nahitaezkoa al da ostalaritzako establezimenduetan maskara erabiltzea?**

Bai. Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, maskara erabiltzeko betebeharra jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, nahitaez erabili behar dira uneoro, bai barrualdeetan, bai terrazetan.

#### **3. ¿Kendu dezaket maskara kirola egiten dudanean?**

Edozein kirol-jardueratan ez da nahitaezkoa izango espazio naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, igerilekuetan, lehiaketa profesional edo erdi-profesionalean murgildutako taldeen entrenamenduetan eta lehiaketetan eta kanpoko jarduera fisiko biziko ezohiko uneetan.

#### **4. ¿Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea hondartza eta igerilekuetan?**

Hondartzetan eta igerilekuetan, bainua hartzen ari garen bitartean eta eremu zehatz batean bagaude, ez da beharrezkoa izango maskara erabiltzea, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke. Hondartzetan eta igerilekuetan joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabili beharko da.

#### **5. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea garraioa erabiltzen denean?**

Sei urtetik gorakoek nahitaez erabili behar dituzte maskarak, edozein garraibide erabiltzen denean, bidaia hasten denetik amaitzen den arte, salbuespen-kasu legeletan izan ezik. Ez da exijituko maskara erabiltzea garraio pribatuan, bidaiariak etxebizitza berean bizi badira. Garraio-profesionalak maskara eraman beharko du zerbitzuan dagoen bitartean, bere lan-eremua gelaxka batean edo babes-manpara batez mugatutako gela batean publikotik bereizita ez badago.



## **BORONDATEZKO AUTOLIMITAZIO-NEURRIEI BURUZKOA**

### **6. Beharrezkoa al da gaueko mugikortasuna mugatzea?**

Bai. Onartu berri den Dekretuak autoerantzukizunerako dei zibikoa egiten du. Gaueko mugikortasuna mugatzea eskatzen du, bereziki, COVID kasuengatik 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gora duten udalerrietan, 01:00etatik 06:00etara bitarteko ordutegian.

### **7. Gomendagarria al da pertsonak elkartzea mugatzea?**

Bai. Onartu berri den Dekretuak autoerantzukizunerako dei zibikoa egiten du. Pertsonen taldeak mugatzea eskatzen du, bereziki, COVID kasuengatik 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gora duten udalerrietan, gehienez ere sei pertsonara, bizikideak salbu.

## **OSASUN-ERANTZUKIZUNEKO BETEBEHARREI BURUZKOA**

### **8. Behartuta al nago kutsadurak arakatzen eta horien trazabilitatea egiten laguntzera?**

Bai. COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kutsatutako pertsonak eta haiekin kontaktua izan dutenak behartuta daude kutsadurak arakatzen eta horien trazabilitatea egiten laguntzera, eta, beraz, herritarrei eskatzen zaie jarraipenaren arduradunek zuzendutako deien arretan zorrotzasunez jokatzeko, eta eskatutako informazio guztia ahalik eta azkarren eta egiazkotasunik handienarekin ematea.

### **9. Derrigor konfinatu behar al dut neure burua agerraldi epidemiko baten eraginpean egonez gero?**

Bai. COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, epidemia-agerraldiak kaltetutako pertsonak konfinatzeko betebeharrak pertsonala dute, eta, horren ondorioz, isolamendu-betebeharrak zorrotz bete beharko dituzte, beste pertsona batzuekin lekualdatzeko edo aurrez aurre erlazionatzeko aukerarik gabe, bai eta berrogeialdiak betetzeko kutsatu izanaren susmoa duten beste pertsona edo pertsona-talde guztiei dagokienez. Horiek guztiek osasun-agintarien edo -zerbitzuen jarraibideak bete beharko dituzte, indarrean dauden protokoloen eta kasu bakoitzaren egoera zehatzaren arabera.

## **TOPAKETA, JAI EDO EKITALDIETAN PARTE HARTZEARI BURUZKOA**

### **10. Parte har al daiteke topaketa, jai edo ekitaldietan?**

Indarrean dauden prebentzio-protokoloak eta -neurriak aplikatzen ez diren pertsonen pilaketa dakartzaten bilkuretan, festetan edo ekitaldietan –ez kanpoan, ez barruan– parte ez hartzeko betebeharra ezartzen da.

00:00etatik 06:00etara bitartean, bizikideak ez diren pertsona-multzoak edo jende-pilaketak ezingo dira egon parkeetan, lorategietan, hondartzetan, kirol-eremuetan, irristaketa edo skate pistetan edo aire libreko antzeko erabilera publikoko espazioetan,



ez eta portuei eta itsas pasealekuei dagozkien espazio publikoetan ere. Edonola ere, espazio horiek erabil daitezke pertsonak igartzeko eta erabilera profesional edo ekonomikoetarako. Udalei eta, hala badagokio, administrazio eskudunei dagokie gune horiek antolatzea.

#### **11. Nola jokatu behar dut noizean behingo edo ustekabeko jende-pilaketak gertatzen diren gizarte-ekitaldi batean?**

Antolatzaile zehatz, publiko edo pribatu batek kontrolatzen ez dituen pertsonen noizbehinkako edo ustekabeko pilaketak gertatzen diren ekitaldi sozialetan, zorrozki eta nahitaez bete beharko da pertsonen arteko 1,5 metroko distantziari eustea bai eta aglomerazioa gertatzen ari denean 4 metro koadroko pertsona baten gehieneko edukiera ere. Nolanahi ere, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezartzen dituen jarraibide eta gida guztiak errespetatu beharko dira, jendearen egonaldia eta asistentzia antolatzeko, transmisio birikoaren arriskua saihesteko moduan.

### **MERKATARITZA-, GIZARTE- ETA KULTURA-JARDUEREI ETA EDUKIEREI BURUZKOA**

#### **12. Zein da jarduera komertzial, sozial eta kultural guztiak uzteko ordutegia?**

Jarduera guztietan baimendutako gehieneko edukiera ehuneko 35ekoa da lokal eta instalazio guztietan, muga espezifikiko bat aplikatzen zaienetan izan ezik. Neurri hau 2021eko uztailaren 26ko 00:00etan sartuko da indarrean.

Muga hori ez zaie aplikatuko aldez aurretik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera edukiera handiagoa kontratatuta edo erreserbatuta duten zerbitzu eta jarduerari.

#### **13. Zein da kultu-zentroetan baimendutako edukiera?**

Baimendutako gehieneko edukiera ere ehuneko 35ekoa da.

#### **14. Zein da merkataritza-, gizarte- eta kultura-jardueretan baimendutako edukiera?**

Jardueretan baimendutako gehieneko edukiera ehuneko 35ekoa izango da lokal eta instalazio guztietarako, muga espezifikoren bat aplikatu behar duten lokal eta instalazioetarako izan ezik. Neurri hau, 2021eko uztailaren 26ko 00:00etatik aurrera sartuko da indarrean.

#### **15. Ba al dago edukiera eta ordutegi mugarik garraiorako?**

Garraibideek berriazko araudian baimendutako edukiera osatu ahal izango dute.

EAEko hiru lurralde historikoetako garraio publikoak, edozein motatakoak eta eremu txikiagokoak izanik ere, gehienez 02:00etan irten beharko du.

#### **16. Lokalen aireztapena nahitaezkoa da?**

Lokal eta instalazio guztiak etengabe aireztatu beharko dira.



### **17. Zer edukiera muga errespetatu behar dute gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldiek?**

2021eko uztailaren 26ko 00:00etatik aurrera, oro har, edozein motatako gizarte-, kultura- edo kirol-ekitalditarako esparruetan gehienez ere 400 pertsona bildu ahal izango dira barnealdeetan eta 600 pertsona kanpoan. Berariaz:

– 1.600 eta 5.000 lagun arteko edukiera duten esparruetan, gehienez 600 pertsona egon daitezke barruan, eta 800 kanpoan.

– 5.000 lagun arteko edukiera duten esparruetan, ez da gehieneko edukieraren %20 gaindituko. Ahal den guztietan, 1.000 pertsona baino gutxiagoko eremu independenteak ezarriko dira, sarbide eta pasabide independenteko guneeekin.

Muga horiek ez zaizkie aplikatuko aldeztu aurretik eta indarrean dagoen aurreko araudiaren arabera edukiera handiagoa kontratatuta duten ekitaldiei.

– Aire zabalean egiten diren ekitaldietan, hiri-inguruneetan nahiz ingurune naturalean izan, jendea jarduera horietara joan ahal izateko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideak errespetatu beharko dituzte antolatzaileek.

## **OSTALARITZARI ETA JATETXEEI BURUZ**

### **18. Zer muga dituzte ostalaritzako eta sukaldaritzako establezimenduek?**

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen barrualdeetan, edukieraren ehuneko 35eko muga ezartzen da. Neurri hau 2021eko uztailaren 26ko 00:00etan sartuko da indarrean. Gainera debekatua dago barran edo zutik kontsumitzea.

Zerbitzua antolatzeko, barrualdeetan eta terrazetan, gehienez sei pertsona izan daitezke mahai edo mahai-talde bakoitzeko, bizikideen kasuan izan ezik. Ezin izango dira bezero gehiago elkartu ez lau lagunentzako mahaie-tan, ez sei lagunentzako mahaietan ere.

### **19. Zer ordutegi onartzen zaie ostalaritza eta jatetxeei?**

Gainerako gizarte- edo kultura-jardueretarako erabiltzen den berbera: 01:00ak arte gehienez (ikus 12. galdera).

### **20. Zer baldintza bete behar dira joko- eta apustu-lokaletarako?**

Joko- eta apustu-establezimenduen barruko edukiera ehuneko 35 izango da. 01:00etan itxi beharko dute gehienez. Ostalaritza- edo jatetxe-zerbitzua badute, sektore horretarako aurreikusitako baldintzak beteko dituzte.

### **21. Zer baldintzatan irekitzen dira txokoak eta elkarte gastronomikoak?**

Arau hauek beteko dituzte:

– Edukieraren %35eko muga ezartzen da, barran edo zutik edozein kontsumo debekatzen da eta maskara nahitaez erabili behar da, ahoratzen den unean izan ezik.

– Erabiltzaileen antolaketan, mahai bakoitzeko sei pertsona baino gehiago ez dira egongo, bizikideen kasuan izan ezik. Ezin izango da mahaietan lau edo sei



pertsonarentzat baino gehiagorentzat egon. Nolanahi ere, ziurtatu beharko da gutxienez 1,5 metroko distantziari eusten zaiola mahai desberdinetan eserita dauden pertsonen artean.

**22. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea ostalaritza- eta joko-establezimenduetan edo txokoetan?**

Establezimendu hauen barrualdeetan, maskara etengabe erabili beharko da, elikagaiak edo edariak hartzeko unean izan ezik. Barruko espazioetan maskara etengabe ez erabiltzeak arrisku handiko testuingurua adierazten du. Terrazetan, maskara erabiltzea gomendatzen da oraindik ere, eta nahitaezkoa da bizikide ez diren pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantziari eustea ezinezkoa denean.

**23. Ireki al ditzakete lonjak, gazte-lokalak eta antzekoak?**

Ez, itxita daude.

**24. Itxita jarraitzen al du gaueko aisiak?**

Itxita egongo dira diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduak, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan III. eta IV. taldeetan sailkatutakoak, salbu eta beren jarduera I. eta II. taldeetarako indarrean dagoen araudiaren arabera garatzen badute eta dagokion udal-baimena badute.

**25. Gehienez zenbat pertsona egon daitezke museoak, erakusketa-aretoak, natura-turismoa edo jolas- edo turismo-zentroak bisitatzen dituzten taldeetan?**

Museoetan, erakusketa-aretoetan, natura-turismoan eta aisialdi- eta turismo-zentroetan, barrualdean egiten diren bisitetan, taldeak gehienez ere 10 pertsonakoak izango dira. Kanpoan egiten badira, ez dago mugarik Eskola-talde egonkorrek gida bakarrarekin joan ahal izango dira museoetara.

**26. Zenbat pertsonak har dezakete parte euskaltegietan, akademietan, autoeskoletan, eskoletan eta arautu gabeko prestakuntza-zentroetan egiten diren jardueretan?**

Euskaltegietan, akademietan, autoeskoletan, eskoletan eta arautu gabeko prestakuntza-zentro publiko zein pribatuetan egiten diren jarduerak gehienez 25 laguneko taldeetan eman ahal izango dira.

**27. Zer baldintzatan garatu behar dira haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak?**

Aisialdiko jarduerak antolatzen dituzten erakundeek COVIDen aurkako protokolo bat izan beharko dute prebentzio-neurri guztiak benetan betetzen direla bermatzeko, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideei jarraikiz.



**28. Zenbat pertsona izan daitezke taldeak barruko instalazioetan kirola egitean?**

Barruko instalazioetako kirol-jarduera 10 pertsona arteko taldeetan egituratu ahal izango da.

**29. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea kiroldegietan, gimnasioetan eta barruko esparruetan?**

Bai.

**30. Non aurkitu dezaket informazio gehiago?**

•Jarduera desberdinetarako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo esteka honetara:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>

•Bizi Berri IV Plana kontsultatu nahi izanez gero, jo esteka honetara:

[https://bideoak2.euskadi.eus/2021/07/07/news\\_70474/Bizi\\_Berri\\_IV\\_eus.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2021/07/07/news_70474/Bizi_Berri_IV_eus.pdf)

## Indarrean dauden neurri nagusiak, COVID-19aren aurrean


## Principales medidas en vigor frente a la COVID-19

**Maskara.** Nahitaez erabili behar da barnealdeetan eta jende pilaketa ematen den edozein hiriguneetara. Salbuespen gisa hartzen da jendea biltzen ez den naturaguneetan.



**Mascarilla.** Su uso es obligatorio en interiores y en cualquier entorno urbano transitado. Se exceptúa en espacios naturales sin concurrencia de personas.

**Oinarrizko beste neurri batzuk.** Pertsonen arteko distantzia, 1,5 metrokoa. Saihestu pilaketak. Eskuak garbitu. Barrualdeen aireztapen konstantea.



**Otras medidas básicas.** Distancia interpersonal de 1,5 metros. Evitar aglomeraciones. Limpieza de manos. Ventilación constante de interiores.

### Indarrean dauden itxierak.

·Gazteentzako lonjak eta lokalak itxita jarraitzen dute.  
·III. eta IV. taldeetako gaueko aisialdiko establezimenduak itxita daude. I. eta II. taldeetako ostalaritzaren ordutegiaren eta mugen arabera jardungo dute.



### Cierres vigentes.

·Se mantiene el cierre de lonjas y locales juveniles.  
·Permanecen cerrados los establecimientos de ocio nocturno de los grupos III y IV. Los correspondientes a los grupos I y II se regirán por el horario y limitaciones de la hostelería.

**Ordutegiak.** 01:00etan, establezimenduak ixtea eta kultura-, gizarte- eta merkataritza-jarduerak etetea. EAEko hiru lurralde Historikoetako bakoitzaren eremu txikiagoko garraio publikoak, gehienez 02:00etan irten beharko dute.



**Horarios.** Cierre de establecimientos y cese de actividades culturales, sociales y comerciales a las 01:00h. El transporte público inferior a cada uno de los Territorios Históricos, tendrá como horario máximo de salida las 02:00h.

**Edukierak.** Bai merkataritza bai oro har, %35, muga espezifikoko bat aplikatzen denean izan ezik.



**Aforos.** Tanto en el comercio como con carácter general, 35%, salvo cuando se aplica una limitación específica.

**Publikoa ekitaldietan.** 1.600 pertsonatik beherako edukierako esparruetan, gehienez 400 pertsona barruan eta 600 kanpoaldeetan. 1.600 eta 5.000 arteko esparruetan, 600 barruan eta 800 kanpoan. 5.000 baino gehiagoko esparruetan, gehienezko edukiera ezin izango da %20 baino handiagoa izan.



**Público en eventos.** En recintos con capacidad inferior a 1.600 personas, máximo en interiores de 400 y de 600 en exteriores. En recintos de entre 1.600 y 5.000, en interiores 600 y 800 en exteriores. En recintos de más de 5.000, el aforo máximo no podrá superar el 20%.

**Ostalaritza.** Itxiera 01:00etan. Barneko edukiera %35ean mantentzen da. Debebatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 6 pertsona. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea, irensteko unean izan ezik. Joko-lokaletan muga berberak aplikatuko dira.



**Hostelería.** Cierre a las 01:00h. Aforo en interiores del 35%. Prohibido consumo en barra o de pie. En cada mesa, máximo 6 personas. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta. En locales de juego son de aplicación las mismas limitaciones.

**Txokoak.** Itxiera 01:00etan. %35eko edukiera. Debebatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 6 pertsona. Nahitaezkoa da maskara, irensteko unean izan ezik. Etengabe aireztatze betebeharra.



**Txokos.** Cierre a las 01:00h. Aforo del 35%. Prohibido consumo en barra o de pie. En cada mesa, máximo 6 personas. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta. Obligación de ventilación constante.

**Kirola egitea.** Aire zabalean, pertsona-kopuruan mugarik gabe; barruko instalazioetan, gehienez 10.



**Práctica deportiva.** Al aire libre, sin limitación de número de personas; en instalaciones interiores, máximo de 10.

### Osasun-erantzukizuneko betebeharrak.

Kutsatuta dauden edo kontaktu zuzena diren pertsonak azkar eta egiazkotasunez lagundu behar diete arakatzailerei. Era berean, konfinamendu- edo berrogeialdi-betebeharra dute.



**Obligaciones de responsabilidad sanitaria.** Las personas afectadas por contagio o por ser contacto, deben colaborar con las personas rastreadoras con celeridad y veracidad. Deben igualmente cumplir la obligación de confinamiento o cuarentena.

**Autoerantzukizunerako dei zibikoak.** Gaueko mugigarritasuna borondatez mugatzea 01:00etatik 06:00etara, eta pertsonen bilkurak gehienez sei pertsonatakoak izatea. Autoisolamendua lehen kutsatze-sintomak izan bezain laster.



**Llamamientos cívicos para la autorresponsabilidad.** Limitación voluntaria de la movilidad nocturna de 01:00 a 06:00h. y de agrupaciones de personas a un máximo de seis. Autoaislamiento en cuanto se experimenten los primeros síntomas de contagio.

Birus honek heriotzak eta sufrimendua eragiten ditu  
**itxaropenerako zuhurtzia**

Este virus provoca muertes y sufrimiento  
**prudencia para la esperanza**

*Euskadi, auzolana, bien común*